



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka Izagirre Brosa

Krimen bat idatzi da (egiazkoa)


The Jinx

HBO

Hasierako tituluetatik hasita, musika bitarte, azken ataleko azken segundorainoko erakustaldi hipnotiko eta makabroa. Tentsioa eta erritmoa, jolas parke batean egongo bagina bezala, gora eta behera sentitzen dituzun bitartean Hollywoodeko edozein gidoik nahiko lituzkeen biraketa harriarriak. 2010. urtean Andrew Jarecki zuzendariak "All Good Things" filma estreinatu zuenean, gutxik espero zuten Robert Durst-en bizitzan oinarrituriko pelikula horrek izango zuen eragina hizketagai dugun dokumental hau filmatzeko garaian. Momentu horretan jarri baitzen kontaktuan benetako protagonista zuzendariarekin, orain arte inoiz egin ez zuen elkarriketa edukitzeko prest zegoela esanez. Eta nor zen zehazki tipo hau? New Yorkeko familia ospetsu eta dirudun batetik datorren pertsonaia bitxi eta misteriotsua dugu Robert Durst. Gizon bat hil eta zatikatzeaz gain, bere emaztea eta lagun bat desagertzearen erantzule zuzena izatea leporatu zioten.

HBO telebista kateak ekotzitako eta sei zatitan banaturiko lan metodiko honetan, bere bizitzaren errepaso zehatzean murgiltzeko aukera izango dugu. Polizia, epaile, abokatu, testigu eta familia-koen froga eta elkarriketak tartekatzen diren bitartean, polemikoak diren momentu jakin horien berregiteak ikusteko aukera izango dugu. Ezinbestekoa.

Angela Lansbury protagonista duen «Murder, She Wrote» (Krimen bat idatzi da) fikziozko telesail ezagunaren atal guztiek antzeko egitura edo gertakizun katea dute: hilketa bat gertatzen da eta Jessica Fletcher-ek argitu egiten ditu. Errealitatea, zoritxarrez, konplikatuagoa eta ulergaitzagoa izaten denez, fikzioaren mugak apurtu eta telesail dokumental formatura jauzi eginez, azken urteotan modan jarri den «True Crime» (Benetako krimenak) azpigeneroan murgildu nahiko nuke. Benetako krimen bat aztertzen da, normalean gertakari horretan parte hartu duten pertsonen elkarriketak ardatz hartuz eta askotan, krimen horren gaineko kazetaritza ikuspuntu bat emateaz gain, ikertzaile lanak ere egiten dituzte. Errealitateak fikzioa gainditzen duen froga nabarmena bilakatu diren ikus-entzunezko harriarriak.



Making a Murderer

NETFLIX

Bi denboraldiko 10 atalez osaturiko ekoizpena, bakoitzak 60 minutuko iraupena duena. Pentsa beraz, zer-nolako zehatasun eta xehetasun maila duen dokumentalak. Hamar "pilula" horietako bakoitzean, Steven Avery-ren kasu sinestezina ikusteko aukera izango duzu. Sexu eraso baten ondorioz 18 urte espetxean pasatu ondoren, DNA proba bati esker, errugabea dela egiaztatu eta aske uzten duten tipoa. Hortxe kokatzen dira dokumentalaren lehen minutuak, ez pentsa beraz, spoiler erraldoi bat irakurri duzenik, lasai. Krimenei buruzko beste lanetan, ohikoena erruduna den ala ez jakitearen intriga hori amaierarako uztea izaten da. Kasu guztia zehatz-mehatz azaldu eta amaieran, zast!, erabakia. Baina "Making a Murderer"-ek beste eremu batean kokatzen gaitu hasieratik. Errugabea den tipo bati bizitzako 18 urte lapurtu dizkiote, eta orain zer? Galdera eta misterio guztiak ezbehar horren inguruan izango direla uste dugunean ordea, kasuak beste noranzko bat hartuko du. Kartzelatik irten eta urte batzuk beranduago, emakume baten hilketa leporatzen diotenean, karta gaztelu baten modura eraikitako bizitza hori betiko birrintzen dutenean.

Tiger King

NETFLIX

Liluragarria bezain surrealista. Ziurrenik 2020an ikusi dudana dokumentalik bizarro, bitxi eta

sailkaezinena, errealtateak fikzioa gainditzen duen froga dokumentatua. *Tiger King* bezala ezagutzen den Joe Exotic tigreen merkataria xelebrearen eta Carole Baskin tigreen arteko eztabaida da ekoizpenaren ardatz nagusia. Hortik aurrera ordea, animalia exotikoak, krimen antolatua, narkotrafikoa, mafiosoak, iruzurgileak, arlo-teak, drogazaleak, ezkontzak, sektarismoa, armak, indarkeria, desagertutako pertsonak, ego-gerrak, gezurrak, mehatxuak, telezaborra... hori guztia eta askoz gehiago da koktel leherkor xelebre honetan topatuko duzuna.

Arrakasta itzela izan du dokumental honek aurrean Netflixen; tramaren ustekabeko biraketengatik eta testigantza harriarriak ematen dituzten elkarriketatuengatik ziurrenik. Ikusten duzun unetik, lagunekin komentatu nahiko duzun dokumental harriarria.

Wild Wild Country

NETFLIX

Telesailaren lehen minutuek 1980ko hamarkadara garamatzate, Oregonen (AEB) dagoen Antelope herrixka aurkezteko. 40 biztanle inguru dituen parajea da eta pertsona ugarik, bizitza osoa lanean aritu ondoren, zahartzaroko azken urteak lasai igarotzeko aukeratzen duen helmuga. Baina zurrumurru arraro bat zabalitzen den unean lasaitasun hori eten egingo da. Rolls-Royce baten gainean, oso garrantzitsua eta diruduna den gizon

indiar bat azalduko dela diote, alboko 30.000 hektarea erosi eta bertan ehunka eraikin eta etxebizitza eraikitzen hasiko dena. Hori entzun eta segundo gutxira, herrixka goitik behera gorris jantzita doazen ehunka pertsonaz betetzen hasiko da eta, atzetik, aipaturiko Rolls-Royce zuria. Antelopen gerta-tzeaz den etorrera horrek zu-rrunbiloa eragingo du, sinestea kostatuko zaizun ehunka gertaeraz betea.

Chapman eta Maclain Way-k zuzenduriko eta sei atalez osa-turiko lan lilugarri honek AE-Betako historiaren pasarte bi-txi bat azaltzen du, mundu osoa ustekabeen harrapatu zuen gertaera harrigarria: Bhagwan Shree Rajneesh lider espiritualak eta bere sektaren jarraitzaileek Oregongo lurre-tan beren hiria eraiki zutene-koa, baita gerora eragingo zi-tuen ondorio ikaragarri, basati eta ilunak ere. Hainbat hilketa leporatu zizkieten, espioitza ka-suak, baita hauteskundeak ira-bazteko intentzioz bioterroris-mo atentatu bat ere, besteak beste.




O.J.: Made in America

MOVISTAR

Bost ataletan, O.J. Simpsonen gorakada ikusteko aukera izango duzu, izar bihurtu zen arte; eta batez ere, izan zuen erorialdi ikaragarriari buruz-ko errepasso sakona ikustekoa. Nola ikasi zuen gazte afro-amerikarrak bere mitoa erai-kitzen futbol unibertsitarioan eta profesionalean; irudi hori mugaraino promozionatzen ikasi ere, AEBetako “beltz zu-riena” bilakatu zen arte. Eta nola, bere emazte ohiaren hil-ketaren gauetik aurrera, amets hori betiko suntsitu z(u)en. Hain erreala eta gordi-na, non Hollywooden gidoilari onenaren burutik irtendako istorio baten aurrean zaudete-



Aurreko orrialdean, «The Jinx» eta «Making a Murderer». Orrialde honetan, «Tiger King», «Wild Wild Country», «O.J.: Made in America» eta «Paradise Lost: The Child Murders at Robin Hood Hills»



la sentituko duzuen. Doku-mentala ez baita epaiketan eta adibide zehatz horretan soilik zentratzen, garai harta-

ko testuinguruan kokatzen gaitu, Ipar Amerikak bizi izan zituen une latzak mahai gai-nean jartzen ditu, adibide ze-

hatz honekin talkan: aipaturi-ko arrazismoa, basakeria poli-ziala, aberastasuna eta priba-legioak, etxeko indarkeria,

komunikabideen eboluzioa, erlijioa... Azken finean, “O.J.: Made in America” bilakatu da gizarte estatubatuarra azken 50 urteetan kezkatu duen ia guztiaren 8 orduko azterketa ikaragarria.

Teknikoki aparta, ezin hobe-a, “gutxierekin asko” filosofia ar-datz duena. Handikeriarik gabe eta birsortze konplikaturik txertatu gabe, narrazio nagusia batik bat artxibo irudiek era-maten dute aurrera, baita elka-rrizketatuen testigantzek ere. Irudien bilketa, sailkapena eta egindako muntaia lana aho za-balik geratzeko modukoa da.

Paradise Lost: The Child Murders at Robin Hood Hills

HBO

Estatu Batuetako Robin Hood Hills (Arkansas) hirian, hiru ume hilik eta torturatuak azal-tzen dira. Hilketak, konnotazio satanikoak dituela dirudi eta aitzakia hori argudiatuz, hiru gazte atxilotzen dituzte: Da-mien Echols, Jason Baldwin eta Jessie Misskelley. Lerro hauek idazten ari naizen bitar-tean eta dokumental hau go-goratze hutsarekin, oilo ipur-dia ageri da nire besoetan, ikaragarria eta beldurgarria iruditu baitzait. Lehenengo za-tia 1996an grabatu zen, “Para-dise Lost: The Child Murders at Robin Hood Hills” izenekoa. Bertan hiru gazte hauen epai-keta osoa ikus dezakegu, eza-gun eta familia guztien testi-gantzak, elkarrizketak eta abar. 2000. urtean, aldiz, “Pa-radise Lost 2: Revelations” iri-tsi zen; pista eta testigantza berriak direla-eta epaiketare-kin hasten dira berriro, diru-dienez gauza asko ez daude-eta argi. 2011. urtean pasako dena aldiz, “Paradise Lost 3: Purgatory” atalean, zuk desku-britu beharko duzu. Derrigo-rrez ikusi beharreko doku-mental sorta.